



GAUR GAURKOAK

RIKARDO ARREGI

Nik uste dut euskaldunak bearrezkoa dugun gaurkotasuna ez dugula bear bezela pentsatzen. Oraingo garai auk, gure garai auk, bere zirkunstanziakin bat egiñik, nostalgikoak biurtu gaituzte. Nostalgikoak eta gaiñera defensiban bizi etazi.

Aiñ indartsu eta onelako samintasunarekin gure prolemak XIX'gn. gizaldian asi ziran. Penagarria da benetan Euskalerriko XIX'gn. gizaldiko historia bear bezela idatzi gabea izatea. Gizaldi ortan asi zen Euskalerraren industrializazioa eta gizaldi ortan ere galdu zuen Euskalerriak bere buruaren jabetasuna fueroak galtzerakoan. Bi gertaera oiek, fueroak galtzea eta industrializazioa, baliteke elkarren artean zer ikusirik ez izatea. Baiñan seguruena baietz uste dut. Baiñan fueroak galdu giñulako industrializatu gerala edo industrializatu gerala fueroak galdu ditugula oraindikan

garbi ikusten ez dedan gauza da. Utzi dezadan ordea puntu au ez baida oraingoz guretzat garrantzitsuena.

Esan bezela lengo gizaldia industrializazio asieraren gizaldia da Euskalerrian. Orduan jarri zitzaizkigun gure prolemak gorri gorrian euskaldunoi. Orregatik jarri giñan defensiban, bear bada beste erremediorik ez genduelako. Orregatik asi giñan nahasten eta bat egiten euskaldun izaera ta nekazari izaera. Ta ortan daude gaur egunean ere gure prolema aundientakoak. Industrializatutako gizarte batean bizi izan arren gure izaera nekazari gizarte bateri lotua dagola uste dugu edo uste izan dugu gutxienean. Orregatik lengo gauzak bakarrik, lengo dantzak, lengo abestiak, lengo oiturak artzen ditugu euskal izaeraren adierazle onenak bezelak. Guarko gauzak berriz ez zaizkigu batere euskaldunak iruditzen geien bat beinepein.

Orregatik bear bearrezkoa dugu gure prolemak atzera begira erabilli bearrean gaurko egunari ta gerroari begiratuta pentsatzea. Ba dakit ba dela beste arrisku bat, au da, gaur eguneko izaategatik gure izaera guztia galtzea. Iñoiz egia izan baldin bada, gaur iñoiz baiño geiago da, munduan zear errien nortasunak galtzen dijoaztela, galtzen eta ittotzen. Gaurkoa izateak ez du esan nai besterik gabe besteak egin dutena, beste erriak, batez ere erri aundien eta indartsuenak egin dutena onartzea, ez. Bakar bakarrik esan nai du gure izaerari dagozkion gai guztiak nolako gizartean, nolako giroetan bizi geran ikusi ondoren bakarrik moldatu bear ditugula. Guk euskaldun izaten jarraitu bear dugu baiñan «gaurko» euskaldunak eta ez ditzagula gure alegiñak lengoa defenditzen galdu gaurko bizitzen baizik.

Zer-egin eta eginkizun zailla dela ba dakit baiñan ez dut uste beste biderik dugunik. Atzera begira jarraitzen baldin badugu geienean museorako gauz interesanteak bezela geldituko gera ta nik beinepein ez dut museokoa izateko batere gogorik.

Industrializazio nai ta naiz ez onartu bear dugu, guk nai ez izanda ere or dagolako ta alde batera uzterik ez dagolako. Saiatu ta moldatu gaitezen gure izaera industrializazioak dakarkin gizartean osatzen eta betetzen.

Ba dira euskera ta Euskalerrari dagozkien gaiak erlijioarenak ba lira bezela artzen dituztenak. Oientzat gaur eguneko «lizunekri» ta «zikinkerriak» ez dute iñola ere gure euskera ikuitu bear. Oien ordeaz askotaz ere ohea da lengo oitura garbiak eta defenditzea. Pentsatze utsak parreguria ematen dit. Lengoko guztiak garbiak ba lira bezela ta gaurko guztiak zikiñak eta lizunak ba lira bezela. Planteamentu onek pentsatu erazitzen dit ba dela ordua euskaltzaleen artean ere pluralismoa sartzea, au da euskaltzale guztiak berdiñak ez izatea. Gaur gaurkoz ba da euskaltzaleen irudi bat tipifikazio bezela artu lezakeguna. Ta ez noa irudi orren nortasuna adieraztera karikatura utsa iruditzen zait eta.

Ba dirudi katoliko zintzoa, gizon ona eta burgesa ez dan ez duela euskaldun izateko eskubiderik. Orregatik ez da arritzekoa askotan gure arteko aideak zenbait espiritu zabal ittotzea.